

Letra apostolikoak Leitza, 1626

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

J.M. Satrustegi, *Euskal testu zaharrak, I*, Iruñea, 1987, 45-47 or.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Letra apostolikoak Leitza, 1626

Ohec dira Letra Aptc^o vaquec, sacra Rota Aguinuac, çeñac vaitira sententia vat atra ičan dudena Don Martin de valcarlosen contra, eta bachiller Don Martin de Aldunçinen fauorez. Ceñec aguinçen baitu edequi daquiola possessioa abbadia eliza onetacoa D. Martin de Valcarlosy, eta eman daquiola bachiller D. Martin de Aldunzini, Vere amarren, eta vezte gauza guztiaquin, excomecaçioaren penaren azpian, eta verreun ducaten penan edequizen, eta erreboçazen dioe D. Martin de Valcarlosen fauorean atreazen sententia lendabiçico ynstançian.- Letra Apostolico oec pressentatu yzandu dira officiale Jaunaren aurrean Juez Aptc negocio onetaco, çeñec aguinçen baytu guardadila emen essaten duen guztia eta condezen du costu guztietan D. Martín de Valcarlos, eta eztiázola eragozi niorc.- eta erreserbazen duela verezat, edo vere superiorearen (zat) onen Absoluçioa.- eta ala adbertiçen, eta asseguracen dut, dagola arturic ongui possessioa bachiller D. Martin de Aldunzinen partes. eguiten dut publicacio au, eta iminico ditut elizaco atarietan Letra hoec, Guztiei notorio den.

* * *

Ohec dirade Letra Apostolico baquec executorialeac, probeituac Matheo Burato jaunac jueza Aitasantuac señalatua sacra Rotaco, erri onetaco Abbadiaco auçiagatic çeña baitarame bachiller D. Martin de Aldunçin eta D. Martyn de Valcarlosen artean. Aguinçen du Juezac paga dizala D. Martyn de Balcarloshec bachiller Aldunçiny, edo haren procuradoreari amaborz egunen barrenean: borzetan eun eta berroquey eta amalau erreal alde batera, eta verroquei eta amar ezcutu, amarna erralecoric, eta gueyago sey ezcutu moneda veretic. Gustiac causa, eta razoe expresaçen diranengatic Letretan. Eta gueyago pagatu behar ditu justamente çor dituen costuac; Aperçebimenturequin pagazen ezpaditu termionetan, prozedituco dela aren persona presso arzero, eta

aren aziendac, eta rentac consignazera
eta secrestazera, eta ahec saldu eta
pagu eguitera. Recrezicen dirade derecho
eta costu guztiequin. Eta zerren eguin
ditudan diligencia necessarioac Yruñean eta emen notifica-
zeco Letra oec vere personan, eta ezin
aurquitu dudan, eguiten dut publicaçio au
eliza onetan, eta yminico dut Letrac, eta
trasladua eliza onen ateari erasidich
guztien notorio den. Eta datorren abbadearen
notiçia, eta gueyago aperçebiçen dut
emanen diodala trasladu fede eguiten
duena escazen duten personaei, emateco
noticia Abbadeari.